

Gizon bat aurkitu dut Mallorca-n

joseba intxausti

Mediterraneo itsasoa aspalditxo idoraa da, ta nik ere ba dire urteak aurkitu nuela, joan den udarara arte bere barna menturatu ez banaiz ere. Ezkonberri ta eskindabiarren ugarteraino heldu naiz, eta mutil zaharrontzat ere ez dago gaizki Mallorca. Herrialde xarmanta huraxe! Izena hainbat izan ba du.

Mallorca'ko amonatxo ta gazteen ezpainenatik izen bat jaso dut: Erzherzog Ludwig Salvator, ta maillorkarrek dioten erara, Luis Salvator Artxidukea. Baina zergatik aitatzen dizuedan herbesteko gizon hau? Lehenik Mallorca-n nik aurkitu dudan gizon printzipalena delako, eta ondoren, guk Euskal-Herrian izan dugun beste gizon baten zeregin asko bete dituelako. Gure Luis Luziano Bonaparte bururatu zitzaidan, Ludwig Salvator Artxidukea-z mintzatu zitzaidanean.

Ludwig Salvator ez da noski maillorkarra jaiotzez, eta hala ere herriak beretzat hartu zuen ta, gure Printzearekin gertatzen ez dena, Mallorca-ko herriak burutan darama Artxidukearen oroitzapena. Estelric, maillorkar idazleak honela esan du: "Nere belaunaldiko askorentzat, hil aurretik eta ezagutu gabe ere, ipuin zaharretako gizaki bat zen..., jakitez eta tristuraz betetako gizona..., jatorri madarikatu baten azken kimua".

Hogei ta bederatzi urte zituen gure Artxidukeak, 1876-an, Mallorca-ra lehenbizikoz iritxi zenean. Ordutik bihotz beroz maitatuko zuen lurralde berria; maitatu ta istudiatzen biziki ahalagindu. Inork ez bezela aztertu ditu Ludwig Salvator-ek Balears ugarteak. Ikus lan horren agergarritzat bere **Die Balearen in Wort und Bild geschildert** (Baleariak hitz-irudiz agertuak) obra paregabea.

Ludwig Salvator, halabehar gaiztoaren igesi

Errege-semea zen gure gizona. Jau-regi batean (eta nolakoan gainera!), Florentzia-ko Pitti-renean, 1847-an mundura etorria. Jatorriz, Habsburgo-Lorena-borbondarra. Toscana-ko Leopoldo II bere aita. Espainia-ko Fernando VII-aren alargun M^a Kristina-ren iloba zen Artxidukea. Kennedy-tarren antzera, Ludwig Salvator-en familiartekoak, patu gaiztoaren batek bultzata, banan-banan ezbeharrrik gorrienak zigortu zituen. Aita, Errepublica batek bota zuen errege-jauregitik (1849) ta, azkenik, beste Errege batek, Vittorio Emmanuele-k, kendu zion erresuma (1859-60). Harrezkero, 1859-ko apirilaren 27-az gero alegia (goizeko lauretan irten behar izan zuten Pitti erregetxetik), gure mutila nunahi izango da atzerritar eta etxeko: "Printze bidegaldua" deituko zioten gerora. Halatsu izan zen honen izeba ere: Elizabeth Austria-koa, Franz Joseph I (1848-1916) bere senar aspergarria utzita, ta semea hil zitzaionetik batez ere, mundu zehar hasiko da geldiezinik.

Bo zekien zein familiako odola zera-makien: Maximilian, bere osaba, Méxiko-n afusilatu zuten (1867) eta honen alargun Carlota-k burua galdu zuen ondoren. Baviera-ko Ludwig II-k, Artxidukearen lehengusua, medikuek zorotzat eman zutelako, bere burua hil zuen (1886), eta honen anaia lelogi gertatu zitzaen erregetzara eramán zutenei. Jean Orth, Ludwig Salvator-en anaia, inork non eta noiz izan zen sekula jakin ez duen galerna batek irentsi zuen. Ta Mayerling? Nork ahaztu Rudolf zorigaiztokoa? Han hil zuen bere burua, maitalearekin gaua pasa ondoren, Austria-ko Erregeen lehen-semeak, Rudolf giza-



MIRAMAR eta NA FORADADA harkaitza itsas-barne. Itsas-kolko horretantxe kulukatzen zen Artxidukearen "Nixe" ontzia.

Joan Alcover olerkariak honela kantatu ditu lurralde hauek:
(Itsasertz bizi izan naiz beti, baina ez nuen ezagun gaur arte. Bat-batean Miramar-en erakutsi dit aurpegia. Irribarre eta arnasaka, nexka ameslari. Mundurik mundu dirudi, urbizi baztergabea).
(Truyoi-en argazkia)

rajoa Maria Vetsera-ren maitasunaren erre-errean joan zen. Ta bukatzeko? Gure Artxidukearen emaztegaia ere honelatsuko ezbehar batean hil zen: jantziak su harturik, sukarretan erre zen. Ludwig Salvator-ek berarekin eraman zuen bizitza zehar oinaze honen gorria.

Artxiduke baten haurtzaroa

Gure gizonaren izakera apartekoa, haurtzaroan jasan zituen beldur eta lastura beltzetatik sortua izan zen agian. Baina gora-behera beldurgarri horiek sofritu arren, gure mutilak askatasun osoa izan zuen; Borbon-tar M^a Antonietta bere amangandik zetorkion ahiurri berezia: "Amak nere haurtzaroan zortzi andreren eskuetan utzi minduen, baina argi agindu zien berak: gogo nuena egiten utz zezaidatela... Ta nere jolasen artean ba nituen ongi

arraroak. Ordu luzeak igarotzen nituen tximuekin arboletara igota, eta eguerdian hantxe egiten nuen nere jatordua; otartxo batean ematen zidaten bazkaria. Ta bien bitartean, nere haur-zaina behetik deihadarka..."

Ta goiz batean etorri zitzaion maisu berria:

—Jauna, amak zuri irakurtzen irakasteko izendatu nau.

—Bai? Ta zer dakarkizu hor?, galdetu zuen mutikoak.

—Abedea, jauna.

—Ederki. Utz zazu, joan. Ez zaitut behar.

Berriro maisua itzuli zenerako, ikasita zeuzkan abezedarioaren letra guztiak, beste bere gogoko morroi batekin. Ez zen samurra umea!

Artxidukearen urruti-mina

Giotto, Brunelleschi, Savonarola, Machiavelli... eta hamaika gehiago topa



Ludwig Salvator Artxidukea. gazterik oraindik. Gizaseme egokia, baina urteak, eta barne-atsekabeak, asko zakartuko zuten gerora.

(Jerónimo Tous-en argazkia)

zitzazkean gure gizonak Florentzia-ko kaleetan, edozein ilun-bistetan istoria zaharretik iges eginda. Ludwig Salvator hantxe bizi zen. Arno-behera zetozen ontziei begira-begira gelditzen zen mutila. Nora ote zijoazen?

“Ttsasotik urrun bizi naizenean, ilundu egiten zait begirada ta, ibaien behera-minak bultzata, begiek itsasertz urrunera ihes egiten didate”. Hain zuzen, etorkizunean, itsasoa izango da Artxidukearen ihes-leku. “Ni beti izan naiz etxe-ihes, geldiezuna”.

Itsas-ondamendi denek ez zuten menderatu. Bere “Nixe” ontzia zuen benetakako gorde-leku. “Ezezagunaren bila abiatu...”, horra ametsa, **Le Figaro-n**, **Olatuaren abotsa** izenburuarekin eman zigun artikulo batean esaten zuenez behintzat. Ustegabetan, munduaren inguru itzuli osoa bete zuen: Europa — Melbourne — California...

“Nixe” itsasontziaren barnean nonahiko gizon-emakumeak elkartzen ziren: Austria, Turkia, Frantzia, Mallorca... Marinel eta maitale; gizaseme gogorak eta kondesa eta gainerrako bigunkeriak. Ontzia Mediterraneo zehar zebilen gehienetan: Alejandria-tik Trieste-ra, Mallorca-tik Ramlech-era (Palestina-n). “Joan-beharraren mina gertatzen da beti indartsuena, itsasertzeko eder-liluren gaindik”, dio Ludwig Salvator-ek.

Artxidukearen lagunak

Ludwig Salvator ez zen bera jaio zen gizarterako egina. Haatik, lokarri horiek hautsi egin zituen, eta ihesi irten. Halaz ere, hartu-eman hauek ez ziren erabat eten. Mallorca-n, Miramar-ko bere etxeetan askori eman zien ostatu. Rudolf zenaren Stefania alarguna, Errusia-ko Wladimir, Orleans-go Dukea, Espainia-ko Isabel Infanta, t. ab. odol urdinekoetatik, Rubén Darío, Russinyol, Unamuno eta beste askok ikustatu zuten; baina guzi horietatik bat gogoratzen digu berak, Mossén Cinto Verdager (1845-1902):

(13-gn. orrian bukatzen da).

junio de 1660) hija de Felipe IV, esposa del rey Luis XIV, de Francia habían precedido las Conferencias que terminaron con la "Paz de los Pirineos". Los plenipotenciarios escogidos por ambas coronas —España y Francia— fueron: Don Luis de Haro, marqués de Carpio, por España, y el Cardenal Mazarino por Francia. En el período comprendido entre ambas "Entregas" había descendido enormemente el poderío y el prestigio españoles, e inversamente, aumentado el francés. Los preparativos no por eso fueron menos complicados y ostentosos. Felipe IV creía, sinceramente, que el primer deber de un gobernante era el de impresionar a los Estados extraños por la ostentación de la grandeza y boa-

to. Se levantaron construcciones similares a las que hubo en 1615 en la Isla de los Faisanes.

El Cardenal Mazarino había dicho que la conferencia duraría cuatro días. El sagacísimo diplomático fue mal profeta, pues duraron casi 3 meses, desde el 23 de Agosto hasta el 17 de Noviembre, dejando todavía pendientes algunos problemas. Uno de ellos fue el litigio que traían el Cabildo Eclesiástico de Roncesvalles y el Obispado de Bayona en orden a la posesión de los "cuartos decimales". Durante la guerra el Cabildo de Roncesvalles se había apoderado, por vía de represalias o por justa compensación, de los frutos o rentas tocantes al Obispado de Bayona

y, éste, otro tanto había hecho con los de Roncesvalles. Por orden de los Reyes de Francia y España se reunieron los representantes de ambos cabildos el 24 de Julio de 1665 en Figueras, frontera franco-catalana, y determinaron la devolución y restitución recíprocas. Y para la ejecución de lo tratado se reunieron los representantes de Roncesvalles y del Obispado de Bayona el 20 de Enero de 1666 en la Isla de los Faisanes "en la casa o barraca que en esta dicha Isla está hecha". El Protocolo 1552 dedica unas veinte escrituras para informarnos del desarrollo y vicisitudes de él. Pero como esto va largo, volveremos, D. M. otro día a tratarlo.

Fr. José I. Lasa


(16 gn. orritik dator)

"Handik (Miramar-i buruz ari da) igaro zirenetatik bat gogoratuko dut: Mossén Cinto Verdaguer".

Gizon baten bakardadea

Ludwig Salvator, ordea, bakarrik bizi zen, jendez inguratutako bakardade itxia berea. Mallorca, ugarte da, eta nonahirako itsas-bide denak idekiak ditu, baina ugarte beti aparteko. Berdintsu gure Artxidukea ere: ba zituen "cala" ta itsas-xoko gardenak, mahasti oparoak eta gaztelu-baserriak. Palma-tik iparraldera egiten baduzu, gogora bidean Valldemosa, Miramar, Son Marroig, Na Foradada...

Horiek denek ez zioten, ordea, gizonari sofritzen zuen gogo-bakardadea desegiten. Gizon zakarra zen, bere buruarekin eta ingurukoekin. Zakarkeria dena ez zen, ordea, aski haren maitaberatasuna estaltzeko. Udaberri-arratsaldea zen. Catalina Homar, La Estaca-ko lurretan lanean zebiltzane-



tako neska bat, atzeratuta zetorren alorretik, eta gau hartan ez zen Valldemosa-ra igo. Baina Artxidukeari bakardadea luzeagotu eta minagotu egin zitzaion, Catalina guzterik hil zitzaionean.

* * *

Hau zen gizona. Ta zer egin zuen Artxidukeak Mallorca-n? Zergatik maitatzen dute oraindik? Haren heriotzaren 54 urte ondotik, zer dela-ta aitatzen du herriak Ludwig Salvator? Ondorengo ale batean agertuko dizuet.

Joseba Intxausti